

2008.04.25eko bileraren akta: Itzultzaileak, zuzentzaileak eta argitaletxeak

Apirilaren azken ostiralean, arratsaldeko seietan, batetik Euskalemako ondoko kideok: Rasso Enzenbach, Naroa Zubillaga, Isabel Cantero, Elisabete Manterola, Ibon Ulibarri, Petra Elser, Elena Martinez eta Edorta Gonzalez de Matauko bildu ginen Iruñean; bestetik, Igela Argitaletxeko Fernando Rey eta Xabier Olarra.

Bilerari hasiera emateko, Petrak hitz egin zuen Euskalemaren izenean, elkartearen nondik norakoak azalduz. Orain arte izandako bileren berri eman zuen, baita elkartearen helburuak eta asmoak aipatu ere, labur-labur.

Xabier Olarrak hartu zuen hitza ondoren Igela argitaletxearen jardueraren berri emateko, aurkezpen moduan datuok mahairatuz:

Igela argitaletxeak 36 liburu itzuli ditu guztira azkeneko zortzi urteotan, 2000tik 2008ra, alegia: 15 ingelesetik, 8 italieratik, 7 frantsesetik, 4 alemanetik (guztiok jatorrizko hizkuntzetatik, zuzenean), eta 2 zeharkako itzulpen (halabeharrez). Bestalde, gainbegiratze eta zuzenketa lanak egiten, bi langile daude argitaletxean.

Jarraian, "Argitaletxeak, zuzentzaileak eta itzultzaileak" gaiari heldu zion Olarrak. Eztabaidagaia aurretik finkatuta zegoen eta Euskalemak Igelako kideei jarritako galderetan laburbiltzen da, beti ere itzulpengintza argitaletxeen zein zuzentzaileen ikuspegia aztertu nahian:

Noiz izango da testu bat 'ona'?

Nork/nola erabaki doinu literarioaren egokitasuna?

Nola izan daiteke zuzentzaile eta itzultzaileen arteko lana emankorra?

Zenbat irakurle behar ditu testu batek? Zenbat errepasso?

Posible al da testu bat zuzentzea, jatorrizko hizkuntza jakin gabe?

Zein da editorearen papera?

Non dago sormen lanaren eta merkatuaren arteko oreka?

Noiz esan ezetz testu bati? Zergatik?

Galdera hauen inguruan jardun zuen Olarrak, beste parte hartzaileekin batera, eztabaidan. Jatorrizko hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, hau da, ea xede hizkuntza zuzen litekeen jatorrizkoa ezagutu gabe, abiapuntua zein izaten den gogoratu behar da: argitaletxeak itzultzailea aukeratu egiten du, irizpide jakin batzuen arabera. Honek itzulpenaren maila bermatuta dagoela esan nahi du. Lanaren lehenengo atala itzultzaileari doakionez, berau da derrigorrez jatorrizko hizkuntza ondo ezagutu behar duena. Argitaratzaileak, beraz, uste osoa du itzultzailearengan, itzulpenarako gaitasuna aitortzen diolarik.

Baina jatorrizko hizkuntzak eragin izaten duelako itzultzailearengan, edo lan orok beste baten irakurketa eta begirada kritikoaren beharra daukalako,

zuzentzaile batek aztertu eta zuzendu behar ditu beti xede hizkuntzaren esamoldeak, jatorrasuna, hizkeraren egokitasuna, eta abar. Hari honetara, zuzentzaileari jatorrizko hizkuntza jakitea lagungarri gertatuko bazaio ere (huts mota bat errepikatzen denean, adibidez), hau ezagutzea ez da derrigorrez betebeharreko baldintza.

Edonola ere, itzultzailearen ikuspegia eta zuzentzailearena, elkarren osagarri dira, ahal den itzulpen onena gauzatzeko bidean.

Zuzenketek, alabaina, ez dute zentzuzko kopuru bat gainditu behar. Zuzentze lana ezin daiteke, noski, egite lana baino handiago izan. Bestela esanda, lerro edo esaldi guztietan zuzentzeko zerbait dagoenean, gauza asko ulergaitzak direnean, zuzentze lana berregite lana bihurtzen denean, hots, argitaletxeak baztertu egiten du itzulpena, onartezina delakoan. Honelakorik, dena den, gutxitan gertatzen da.

Oro har, neurria da kontua. Zuzentzaileak orekari eutsi behar dio eta. Zorrotza izan behar den arren, estilorako eta ulermenerako garrantzia duenaz arduratzea da bere eginkizuna, zorrozkeriatan eta txikikeriatan ibili gabe.

Itzulitako testuak jatorra eman behar du, itzulpen-kutsurik izan gabe. Estatu Batuetan korrante bat dago ordea, zeinaren arabera jatorrizko hizkuntzaren arrotasun-kutsua gorde behar den. Euskarak bizi duen egoera diglosikoa eta korapilatsua gogoan hartuta, ez dirudi halako joera hemengo kontuetan ezar litekeenik.

Euskarak berezko dituen zailtasunak gogoratuak izan ziren testuinguru honetan: azken urteotako bilakaeraren abiadura handia, gorabeherak eta aldaketak, Euskaltzaindiaren erabakien atzera eta aurrerakoak eta duela hogeita bost urteko itzulpengintza-mailatik gaurkora dagoen aldea, besteak beste.

Fernado Reyk metodologia arloko egia soil baina funtsezko batzuk azaldu zituen ondoren bere mintzaldian: itxuraz errezak, munta handikoak, hala ere, eta norberak gogoan argi izan behar dituenak, kalitateko lanari eutsiko badio.

Itzultzailearen zein zuzentzailearen zereginak elkarri zuzentzea eta elkarrengandik ikastea du helburu. Biek elkarrekin ituntzeko aukera izatea da, hortaz, lan ona burutzeko baldintzarik onena. Elkarlan honetan, ortografia, ortotipografia, gramatika mailako zuzentasuna, onomastikaren arauak..., eta baita estiloari begiratu behar zaizkio. Arau hutsen eremuan, ordenagailurako zuzentze-programak dira lagungarriak. Nolanahi ere, hutsak eztabaidagarriak direnetan, ondo dokumentatua egon behar da zuzentzailea, uste okerrik inoiz zabaldu gabe. Oro har, batuaren alde egonda ere, aintzat hartu behar dira euskalkiak, orekari eutsiz eta testua txokokeriez bete gabe.

Fernado Reyk ariketa praktikoa gehitu zion azkenik metodologiari buruzko bere mintzaldiari. Berak ekarritako testua adibide gisa erabili zen bileraren azken partean. Bertan, Reyk bereizten ohi dituen huts mailak agertu ziren, gorritz, berdez eta urdinez adierazitako oharren bidez. Gorritz adierazitakoak,

eztabaidatzerik ez dutenak dira, objektiboak dira nolabait esateko, hizkuntzaren arauren bat hautsia izan delako. Beste biak, proposamenaren izaera dute, erabakia egilearen eskuetan uzten dutenak, batetik; bestetik, zuzentzaileak argibide osagarriak, erreferentziak eta iradokizunak ere luzatzen dizkio itzultzaileari. Azken bi mototako oharrak ezinbestekoak dira testuaren maila hobetzeko. Argitaletxeak duen eskarmentuaren arabera, itzultzaileak hamar oharretatik bederatzi hartzen ohi du kontuan, proposamenak onartuz edo bestela, beste irtenbide egokiagoa bilatuz. Zuzentasuna, fidelotasuna, ulergarritasuna, jatortasuna, estilo eder egokia... dira xede hizkuntzari mesede egiten dion itzulpen on baten ezaugarriak. Hauxe da itzulpengintzak, literatura sormen lanaz batera, euskarari egin diezaiokeen ekarpena.

Zortzirak eta laurdenetan eman zitzaion amaiera bilerari.